

Santiago de Txileko egonaldiaren laburpena

Mikel Sergura naiz, Industria Elektronikoren eta Automatikaren Ingeniaritzako graduaren ikaslea. 2015-2016. kurtsoko hemengo lehenengo hilabetea (hango bigarrena) egitera joan nintzen USACH unibertsitatera.

Txilera joan aurretik, beste ikasleen hainbat laburpen irakurri nituen han aurkituko nuenari buruz zerbait jakiteko. Oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan, baina nik uste dut hobe dela gauza gutxi planeatzea eta erabakiak momentuan hartzea, hala ere gomendio batzuk inoiz ez datoz txarto.

Horrela izanik egonaldian zehar egiteko hainbat gomendio eta izandako hainbat arazo besterik ez ditut aipatuko laburpen honetan.

Hasteko esan beharra dago Txile ez dela herrialde merkea, niretzako hango bizitza hemengoa baino pixka bat merkeagoa besterik ez da, hau jakinik has dezagun bidaia:

JOAN AURRETIK:

Nire buruhausterik handiena, hara heltzerakoan non bizi beharko nuenarena zen. Azkenean beste askok bezala, internet bidez ostatu bat erreserbatu nuen eta behin han egonda etxea bilatzen hasi.

Aukeratutako hostatua "Hostal Providencia" izan zen, oso leku gomendagarria, ikasle asko etortzen baitira hona zu bezalako egoera berdinean.

TXILEKIN LEHENENGO HARREMANAK:

Behin ostatua edo dena delakoa aukeratuta eta Txilera heltzerakoan, hirigunera heldu behar zara, honetarako hiru aukera dituzu: autobusa, taxia eta kolektiboa.

Autobusa askoz merkeagoa da baina hiria ez baduzu ezagutzen eta maleta handiekin bazoaz hobe taxia edo kolektiboa aukeratzea, kolektiboa hainbat pertsona garraiatzen dituen taxi moduko bat da, taxia baino merkeagoa baina geldoagoa. Ziurrenik egonaldian zehar berriro hartuko duzula hegazkina nonbaitera bidaiatzeko eta hauetan bai autobusez mugituko zarela.

Aduana pasatzerakoan PDI jartzen duen paper bat eman behar dizute, hau oso garrantzitsua da gero Euskal Herrira bueltatu ahal izateko!!! Niri ez zidaten eman eta poliziarengana joan behar izan nintzen eskatzera.

Hango jendearekin harremanetan hasiz gero eta gauza gutxi ulertzen badizkiezu ez larritu, lehenengo astean beste hizkuntza batetan ariko balira bezala irudituko zaizu.

¿Cómo tai? Voo sabí que si no querí tar aweonao tenes que aprendé Chileno po, ¿Cachai?

Edo halako zerbait jajaja.

Behin ostatuan zaudela, hurrengo urratsa, egonaldi osorako bizilekua bilatzea izango da. Txileko garraioa ona iruditu zitzaidan beraz edonon zaudela ere autobusez edo metroz garraiatzea ez da zaila. Gainera taxiak hemengoekin konparatuz nahiko merkeak dira.

Erabaki behar duzun lehenengo gauza etxe edo pisu batean bizi nahi duzun aukeratzea da. Nire gomendioa: etxe bat bilatzea, eta ahalik eta jendetsuena. Azken batean zertara joan zara munduaren beste puntara? Nire kasuan kultura eta pertsona berriak ezagutzea zen helburua eta horretarako modurik hoberena eta dibertigarriena da hau.

Asko bilatu ostean, Barrio Brasil aukeratu nuen bizitzeko. Hau Txileko auzorik zaharrenetarikoa da, kulturaz eta jendez betea. Gauetako giroa ez da Bellabistakoa bezain handia baina nik gustukoagoa nuen, ez delako hain komertziala. Hoentan, gauetan joateko lekurik aipagarriena "Fonda Permanente" deiturikoa da, astebururo zuzeneko kontzertuak eta giro ezin hobea baitago.

TXILEKO BIZITZA:

Honetaz hainbat gomendio aipatuko ditut bakarrik:

-Erosketak egiteko joan "Mercado de la Vega"-ra. Janaria hobea eta merkeagoa baita.

-Hiritik mugitzeko atera unibertsitatean ematen dizuten "bip" txartela. Honekin metroan eta autobusetan deskontuak izango dituzu.

-Bizikletaren bat lortuz gero nahiko errez mugi zaitezke ere. Hau merke lortzeko joan "bio-bio" izeneko merkatura. Honetan edozein gauza aurki dezakezu, bizikleta erosi nahi ez baduzu ere leku interesgarria da bisitatzeko. Metroko linea horiko Frankling geltokian dago gaizki oroitzen ez banaiz.

-Festari dagokionez, niretzako hoberenak etxeetan egindakoak ziren. Baina leku batzuk aipatu behar baditut, "MITOS" Manuel Mont kalean eta lehen aipatutako "Fonda Permanente" Barrio Brasilen.

-Ostiralero USACH-en dagoen giroa ere aipatzekoa da!

BIDAIK:

Azkenik bidaiei buruz arituko naiz. Txile barruan aipatzekoak dira Valparaiso, Atacamako desertua, Pucón, Pan de Azucar (Bahia inglesa), Villarrica, Chiloe, Torres del Paine,... zuen esku uzten dut hauei buruzko informazio bilaketa.

Txiletik kanpo gertu geratzen dira Peru, Bolibia eta Argentina. Hauetako baten batera joateko aukera baduzue ez pentsatu birritan!

Espero dut hau lagungarria izatea,

Agur bero bat guztioi!